

# Sagarnoarekin topa

**SAGARNO BERRIA.** Imanol Harinordoki errugbilariak sagarnoaren urte berriari hasiera eman dio Lapurdin, Hiruki elkarteak antolatutako ekitaldian

AITOR RENTERIA - BAIONA

**H**au da sagarno berria» erranez ireki zuen ostegunean sagarno urtea Imanol Harinordoki Garaziko errugbilariak, Angelun. Ohiturak zizelkatu-riko erranaldia, abantzu ahil-dua zegoen usantzari datxiko-  
la. Baionako Gau Eskola, ikas-  
tolak eta Gure Irratia biltzen  
dituen Hiruki elkarteak hats  
berritu nahi izan du azken ur-  
teotan sagarnoaren inguruan  
ehuntzen den euskal kultura  
eta horregatik, lehen aldiz  
Ipar Euskal Herrian, sagarno  
urtearen aurkezpena antolatu  
du aurten.

«Sagarnoaren sukarra Ipa-  
rraldean ere hedatzen ari da



**IMANOL HARINORDOKIK** —eskuinean— ireki zuen sagarno denboraldia Angelun. BOB EDME